

EUSEBIO ERKIAGA OLERKARI

*«Argi eta garbi ageri da, edozein orrialdetan, egillearen
«olerkaritasuna» eta lirikako ixuriua.»¹*

Mitxelenak *Arranegi* nobelari buruz esandako esaldi hau beti oso gogoan hartu eban Erkiagak, eta orduan gogoratu egiten eban berak nobela idaztea istripua zala, hau da, poesia idazten ebala-eta, beste norbaitek eskatuta hasi zala prosaz idazten. Berez, bere lehenengo idazlanak poesiak izan ziran, eta horrerik ekin eutsan bere bizitza guztian. Baina bizitzak dituan kontraesanen artean sartuta, gaur egun Erkiagaren lanen bila doan edozein, nobelak aurkituko ditu, poesiak han-hor-hemen aldizkari eta era guztietako argitalpenetan sakabanatuta dagoz-eta.

Hainbeste lan egin eta gero, Bizkaiko Aldundiak ondo mereziduta eukan omenaldia egin eutsan, eta omenaldiko egunean emondako sariez ganera beste sari bat agindu eutsan, olerki guztien bilduma argitaratutea. Lehenago beste askok be esan eutsen hain zabaldua eukazan olerkiak batu eta danak batera argitaratu beharko leukezala, baina beti egiteko. Orduan oster, Aldundiak opatutako saria oso gustora hartu eban eta atoan ekin eutsan beharrari, egunik be galdu barik.

¹ MITXELENA, L.: *Egan*, 1958, XI, 102. orr.

Behargin fina, ekina eta zehatza zan guztiz. Zehaztasun horrerik esker hainbeste urtetan idatzitako hainbeste eta hainbeste olerki, bertso eta poema luze, batu, atondu eta ediziorako prestatuten hasi zan. Behar hori ondoen berak egin eikeala-eta, material guzti-guztia erabili eta gero, argitaratuteko zer izango zan eta zer ez ebatzi ebanean, neuri opatu eustan edizinoaren ardura hartutea. Ordurako, olerkiak batuta eta gaika sailkatuta eukazan, baita bildumaren izenburua pentsatuta be. Handik aurrera alkarregaz behar egin genduan niretzat hain aberasgarria izan dan lankidetzan.

Lanaren prozesua testu guztiak ordenadorean sartuteagaz hasi zan. Barrero be berak ikusi zituan testuok, zehatz ikusi be, beragan normala zan moduan. Horrez ganera niretzat lagungarri izan eitekezan oharrak egiten eustazan, neuk testuaren ganean egiten neutsazan galderak erantzuteagaz batera. Holan osatu dodaz bildumako olerki guztiei buruzko oharrak, irakurleari testuak hobeto aituteko lagungarri egingo jakozalakoan. Eta bide batez, aitortu daidan, olerkari bat zer dan eta pertsona zintzo bat zer dan ikusi eta ikasi dot, bape harrokeri barik eta ezer erakusteko asmorik ez eukan apaltasunetik urtenda.

Olerki bildumaren azkenengo zatia hil aurreko astean begitu eta komentatu genduan. Testua beraz, oso-osorik berak begiratuta dago, hasieran berak hartu eban asmoa beteaz. Nire zeregina ediziorako behar diran oharrak egin, lehenago argitaratuta dagozan olerkien bibliografia aitatu, eta sarrera atondutea da. Hori behar hori amaitutakoan, Eusebio Erkiagari euskaldun guztiok geuntsan zorra neurri baten kitotuta geratuko da, nahiz ta berak ezin ikusi izango dauan, eta badakit jakin ilusino handia eukala berak lan hori argitaratuta ikusteko.

Lan honen edizinoa prestatuten nabilela, Erkiagaren poesigintzaren ezaugarri asko ikusi ditut, eta bertso oso onak dituala konturatu naz. Hau artikulu hau ez da nahiko holako corpus handiak esateko daukan guztia azalduteko, baina ezaugarriarik agirikoenak erakusten ahaleginduko naz, behin

olerkiak argitaratuta dagozanean beste ikerketa zabalagoetarako bidea egongo da-eta.

Bildumaren edukia

Eusebio Erkiagak olerki asko idatzi dauz. Euretariko batzuk argitaratuta dagoz, beste asko ostera ez. Bilduma osatuko daben olerkiak 1931atik 1993ra bitartean idatzita dagoz, eta guztira 513 olerki eta beste 10 poema luze, hau da, bakotxa bere aldetik obra osotzat hartu daitekezan poemak, bakotxak atal desbardinak eta guzti dituala.

Dana dala, hemen ez dagoz Erkiagak idatzi dituan olerki guzti-guztiak. Batzuk berak baztertu ditu bildumatik, bertan agertuteko modukoak ez diralakoan. Beste batzuk zabaldua edo pertsona konkretuei egin eta opatuta deusezalako. Edozein modutan be, bere olerki gehien-gehienak hemen batu dira eta bere poesiagintzaren erakusgarri osotzat hartu daitezke.

Horrez ganera, nahiz ta bilduma honetan agertu ez, lan horren osagarritzat hartu behar dira *Ez zaitez Gernikara joan, Lauaxeta, Idatz & Mintz - Literatur atalen sorta* aldizkariaren 18-19 zenbakiaren separata modura argitaratua (Labayru Ikastegia - Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbao, 1989, 30 orri) eta *Gizonaren aldia* (Ikasbide - Grupo Cooperativo Mondragon, Donostia, 1990, 70 orri) Jose Maria Arizmendiariaren omenez egindako poema liburua haren bizitzaren barri emonez. Honeek lan biok argitaratuta dagozala-ta, eta luzeeragaitik beste bilduman sartuteko gatxa dalakoan, lan horretatik kanpo geratu dira, baina ha ta guzti be ezin ahaztu daitezke Erkiagaren olerki-lan osoa aztertu gura izan ezker.

Olerki guztiak ez dira berak asmatutakoak, banakaren batzuk itzulpenak dira. Oso gitxi dira itzultitakoak dana dala, eta itzulpena danean esan egiten dau ganera.

Beste multzotxo bat euskeraz eta erderaz emoten dau, baina itzulpena bera be kasu honetan berea da.

Olerkietariko batzuk musika dauke. Inoiz musika jakin baterako sortuak dira, eta beste batzutan ostera, letra egin eta gero musika ipini jake. Musikagileen izenak be emoten ditu: Anton Larrauri, Rafael Ruiz de Lejarza, Patxi Bengoa, Feliz Ibarrondo, Juan Cordero.

Erkiagaren poesiaren ezaugarriak

Lehenengo esan beharrekoa da hainbeste olerkiren artean, urte askotan zehar idatziak dirala kontuan hartuta ganera, era askotakoak dagozala. Ez dira bardinak gerra aurreko urteetan idatzitakoak edo azken hiru-lau urteetan idatzitakoak. Ezinbestekoa da aldian aldiko kontestuari begitutea. Bai inguru kulturala, bai gizartea kezkatuten dituan arazoak oso ezbardinak dira gerra aurrean, gerra osteko urteetan, diktaduraren amaieran edo oraintxe bertan. Eta guzti hori agiri-agirian dago Erkiagaren poesian bai gaietan baita poesia egiteko moduan be. Erkiagari buruz zeozer esatekotan esan behar da bere aldiko gizona izan dala bizi izan dan aldi ezbardin guztietan, eta beti egokitu gura izan dauala une horretan egiten izan dan literaturari.

Gaiak

Gaiei begiratu ezkerro, multzoak egin daitekez.

Alde batean aberriagaz zerikusia daukenak jarriko geunkez: Euskal Herriaren egoera aldian aldian, politika giroa, euskaldunen arteko hartuemonak, hango eta hemengo euskaldunak, euskalduntasuna bera. Aberria, hizkuntza.

«Euzkadi,
neure Aberri laztan,
leze-amil bera oan
ene erri,
gel adi:
bizitzea don pozkarri
ta i ere
bizitza-egarri.»
(«Abenda-irrintzia», 1933)

Beste multzo bat kristau fedeari lotutakoa da: Jesusen nekaldia, Aste Santuko ofizioak, kristau fedearen aginduak, moralari lotutako gaiak (abortoa, bikoteak banatutea...), jokabide eredugarriak, heriotzaren osteko berbizkundera, Santuen bizitzak, aginduak.

«Egun auetan
ere, Sugeak
zorrotz ta gertu al du mizto?
Aste sainduan
ere, gizonek
soberetsirik dute Kristo.

Idiki zazu
saietsaldean
duzun urrikal-iturria,
ta bete zazu
asko ta askoren
biotzak duten gabezia».
(«Kristo bakardadean», 1958)

Heriotza sarri be sarri darabil poesi-gaitzat. Gizonak derrigorrez egin beharreko pausua da heriotza.

«To be or not to be...
badakigu hor dogula
gure zain
hobi.»
(«Betorz gazteak» 1990)

Literaturari, eta zehatzago poesiari, hainbat bertso egin izan deusaz: poesia zer dan, beretzat zer esan gura dauan azalduz.

«Berandu bada ere,
Poesia ezagutu dot.
Ez dau egunik, ez urterik;
ez gorputzik ez neurririk.

Poesia
 inoiz ez da zahar,
 gazte da betiro;
 biloizik edo jantzita
 hor dabil etxean
 gizartean,
 auzoan, kale gorrian
 baina askoren inorantzian.

Ez da poesia
 esate soila;
 arimearen dardarea da,
 putz eta haize ikusiezina;
 batzuetan hizkeraz agertua,
 baina ez beti neurtua.»
 («Poesia ezagutu dot», 1992)

Omenaldi modura egindako olerkiak beste multzo batean sartuko geunkez. Erkiagak zeozer adierazi behar ebanean, beretzat modurik erosoena poesiaren bidez egitea zala emoten dau. Norbaiti omenaldi bat egin diotela-eta, baten baten heriotzean, omena egiteko orduan, olerkiaren bidez adierazten eban Erkiagak pertsona horrenganako eukan estima. Euskal kulturari oso ezagunak ditugun hainbat pertsonaia: Lauaxeta, Arizmendiarrrieta, Orixe, Mitxelena, Aita Lino Akesolo, etab., gaur egun oraindino bizi diran beste hainbeste: Karmelo Etxenagusia, Bitoriano Gandiaga, etab., zein pertsonaia historiko edo politika mundukoak, danak izan dira Erkiagarentzat poesia-gai. Nahiz ta bera prosa idazle eta hizlari ona izan, holangoetan beti poesiara jo dau.

«Animan zeneraman zuk
 ederraren uki goxo;
 animan zeneraman zuk
 olerkia, gordin, ezo.»
 («Juan Ramon Jimenez-i, agur», 1958)

«Elhe ederrez predikari on
ta animazai eredua,
bizitzaldian irabazia
lehen-oraiko dedua;
jakitun haundi, asmoz argia,
elheketan txit gartsua,
gizaldi hartan euskaldun orok
plazerki goraiphatua.»
(«Axular handiari, ohore», 1956)

Egunean-eguneango gaiak pitean pitean agertuten dira olerki bilduma honetan. Gaiok edozein eratakoak izan daitezke, normalean egunkarietan argitaratuten diranen modukoak: sikatea eta ur restriktzioak, abioi istripua, ospitalean dagoanaren barri... Bizitzaren esperientziatik ataratako gaiak dira, narratiboak, epikoak, anekdota baten inguruko ziria...

Natura iturri agortezina da Erkiagaran olerkigintzan. Batzutan irudiak egiteko erabilten dau, baina hainbat aldiz bera da gaia. Dala udabarriaren jaiotza, dala neguaren iluntasuna, dala edurraren zuria, dala udako poztasuna, natura eta beronen inguruko guztiak presentzia eta garrantzia sano handia dauka.

«Zelaien esnatu-bearra
negu-nagiak aterarik!
Berriz dator mendi-bertsolaria
-kuku soiñu berdin-
zuaitez zaarren atsegin».
(«Zure ezpaiñak iduri», 1956)

Umirezko olerkiak beste multzo batean sartuko ditugu. Erkiaga umore handiko gizona zan, bai txisteak egiteko, bai hitz jokoen bitartez ingurukoei barre eginazoteko, erreztasun eta joera handia eukan. Olerkietan be, hainbat dagoz ziri-bertsotzat hartu geinkezanak, bertso edo olerki barregarriak dira.

«Iru nobio omen ditu
Larrabeitiko Mariak,

iru nobio errian,
 irurak ille gorriak. (...)
 Nor izango, eta izango
 aren biotzaren jabe?
 Apostua egiteko
 irurak gerturik daude.

Proba orretan epaille
 Maria berbera dugu:
 apostua, eltzekoa
 nork ondoen maneatu.

Larrabeitiko Maria-k
 izan ditu iru nobio;
 apostu arratsaldean
 irurak erre zaizkio!»
 («Ezbear aundia», 1958)

Azkenerako itxi dot, baina behar bada lehenengo aitatu beharrekoa litzatekeen gaia Lekeitio da. Eusebio lekeitiarra zan, eta nahiz ta Bilbon bizi eta Bilboren barri sarritan emon, susterra Lekeition eukan, barruan ondo sartuta ganera. Lekeitiori lotutako gaiak era askotakoak dira eta beste azpi sailkapen bat egin daiteke eurokaz.

«Itsas-ondoan, mendien oiñetan
 dagoan erri txiki zoragarria,
 ene seaska,
 neure Lekeitio,
 erri guztietaz maitiena.»
 («Lekeitio», 1965)

Alde batetik Lekeitiori zuzenean lotuta dagoz, itsasoa leku fisiko moduan, itsasoaren irudi poetikoa, eta bestetik itsasoko bizimodua: arrantzaleen giroa, itsasoko beharra, itsas-inguruko kantu, ohitura eta kultura. Dana da itsasoa baina ikuspegi oso ezbardinetatik begituta agertu daiteke.

Honeri lotuta dago udako turisten bizimodua: hondartza, beste herrietatik bertara joaten dan jendea, jaiak...

Beste alde batetik, itsasoaren ondoan, lehorra dago. Baserri giroa, etxaldeetako bizimodua, ganadua, baserria bera, asko ageri dira eta neurri batean nahiko idealizatuta erabilten dauala emoten dau, sarritan umetako oroitzapenekaz lotuta datorrelako beharbada.

«Irian jaioa naizen arren
alare min dut mendia,
barren ontako maizterrak beti
du arako egarría:
goian zerua, zelaia beian,
landan atsegin-alkia,
iriko kale ta ango istilluak
uzteko dun irrikia.»
(«Landa gizon banintz», 1950)

Lekeitioren historia eta bertako lekuen deskribapen zehatzak beste ikuspegi bat osatzen dabe, ikuspegi etnografikoa. Maitasun handiz darabilen gaia da, baina aldi berean ondo dokumentatuta. Lekeitio ondo be ondo ezagututen dau, eta inoiz pena adierazten dau osteko belaunaldiak behar bestean ezagututen ez dabelako.

Metrika eta neurria

«Zergaitik gure izkerea
Lot zanaren emaztea bezela
geldi, nagi, aldaeziña,
neurri jauntxoaren jopu egiña?

Emen ditut erreskadan
deituriko eredu zaarrak:
amar ta zortzi,
zazpi ta sei,
sei ta sei
eta abarreko itz batzarrak.»
(«Olerki-matxinadea», 1952)

Eusebio Erkiagak era askotako bertso neurri eta mota erabili ditu. Hasi bertsolaritzari lotu-lotuenetatik eta forma barri eta libreenetarainoko bitarteko guztietan egin dau testuren bat. Erkiaga idazten hasi zanean, euskal literaturaren historian aldi berezia osatu eben gerra aurreko poeta nagusiak euren lanak argitaratuten egozan. Hori agiri-agirikoa da Erkiagaren poesia lanetan. Lauaxeta, Lizardi, Orixe, Loramendi, danen antza dauka zertan edo hatan, azken baten, aldi bereko idazleak dira. Antzekotasun hau (beharbada eragina deitu beharko geunskio) alde ezbardinetan ikusten da. Batetik gaietan: ideologia, abertzaletasuna, natura, maitasuna, euskeraganako ardura; bestetik poesia egiteko moduan: herri-literaturaren jabe izanda literatura modernora joteko guraria, forma aldetik estrofa molde ezbardinak erabili, baina aldi berean tradizinoari be eutsi; hirugarren arloa hizkera izango litzateke: hizkera hizkuntzaren aldetik ikusita (neologismoak, aditz trinkoak...), eta literatur hizkera (bai Lizardiren bai Lauaxetaren olerkietan dagozan irudiak agertuten dira Erkiagarenetan be). Honek erakusten deusku Erkiagak idazle handi honeen lanarenganako eukan estima edo miresmena, baina baita be garai horretako idazle eta euskaltzaleen artean egoan literatur tradizino eta gustua. Hau da, kultura eta kontestu bateko semeak dira danak.

Geroago, gerra osteko urte ilunak isilpean igaro ostean, belaunaldi haretatik geratu ziran idazleen artean nabarmendu egin zala esango neuke, nahiz ta inoiz ez dan behar bestean baloratu, aldi haretan ezin zalako ezer agirian egin. Azken aldian oindino, hil arte bertararte idazten jarraitu dau, eta Lauaxeta eta haren garaikideen eskola edo estiloa beti igarri izan jakon arren garaian garaiko poesia moldeetara egokituteko ahalegin handia egin dauala esango neuke. Horrek belaunaldi bat edo biko alde deuten poeta eta orokorrean idazle gazteakaz bat egin ahal izatea ekarri deutso.

Erkiagaren poesigintza Lauaxeta ardatz oso garrantzitsua da, eta orokorrean haren aldiko, gerra aurreko literatur giroa.

Beste ardatz bat euskal tradizioa da. Erkiagak esakera, kantu, ipuin, ohitura, euskal izenen jatorria eta abar'asko ekizan, oso zalea zan holako gauzetara. Bere bertsoen artean, bai estrofa motakaitik bai ostantzeko ezaugarriekaitik, askok dauke ahozko literaturaren txatal mota ezbardinen antza handia.

Bertsolaritzaren ohiartzuna zentzu askotan ageri da: Bertsolariei egindako omenaldiak («Bilintx», 1950; zortziko nagusian eginda dago eta haren «Loriak udan intza bezala»-ren musikaz abesteko oharra dauka); bertsolariek erabilten dabezan estrofa motak erabilten ditu nahiz ta gaia bestelakoa izan; beste batzutan bera agertuten da bertsolariek egiten dabezan bertsoen antzerakoak egiten.

«Bertso barri batzuek
daustazuz eskatu,
zeure ordu mingotsak
daidazan gozatu;
barruan egon biar,
ezin kanporatu,
ormartian gu, gatzak
gaitu inguratu.»
(«Oetik oera, bigarrenez», 1957)

Beste honetan kopla zaharren antzera atondu dau bertsoa:

«Uraren doiñuak ez du atsedetik
bolu zaarrean tinkili tankala;
ni ere ibilia naiz zure atzetik
kalean beera ta kalean gora.
(«Zutik», 1957)

Ahozko hainbat kantu motatan egiten dan errepikapena dago bertso bi honeen arteko lotura egiten:

«Alaz ere, nerekin
daramat iduri:
ezpain oien gozoa,
begi oien irri.

Begi oien irri, ta
biotz baten giltza;
betikoz emaniko
maitetasun-itza.»
(«Ezta gaur ere», 1958)

Beste honetan herri kanta bat aitatu egiten da:

«Pitxarreko astiz
edan bitartean
batzuk kanta kantari
geratzen zirean;
«markesaren alaba»
kantuen artean,
bihotzak samur samur
ilunabarrean.

«Amoriua zeukan
barrena sartua»
holan amaituten zan
bigarren bertsua.
Markes baten alaba
txit maitemindua,
arrantzale bategaz
zorabiatua.»
(«Txalupetxeak», 1989)

Hurrengo honetan Inusente eguneko ohitura jasoten dau:

«Iñusente!...
potente!...
Kaixki kaixko!...
buruen erdian
sartu deutse...»
(«Iñusente... potente», 1990)

Olerki asko eta askok osteria egitura librea dauke. Batzutan bertsoak estrofatan bananduta dagoz, nahiz ta estrofa mota jakin bateri lotuta egon ez. Beste batzutan bertsoak alkarren atzean emoten ditu olerki osoa amaitu arte.

Olerkien forma dala-ta, egilea nahiko olgetaria dogu. Berbak dantzan balegoz moduan eta irudiak eginez ipinten ditu sarritan, inoiz irudiok esanahiagaz lotuta dagozala. «Ixilak jan ditu» izenekoan adibidez, testuaren bitartez urkatuaren forma egiten dau.

Orokorrean nahiko olerki luzeak direla esan daiteke. Baina ezaugarririk bereizgarriena musikaltasuna eta ritmoa dira. Lehenago aurreratu dogu olerki batzuk musika jakin bategaz abesteko direla, eta badagozala beste batzuk musikagile ospetsuek beren-beregi egindako musika daukenak. Eta hortik gorako guztien artean esan daiteke musikarik ez badauke be ritmoa oso ondo markatuta daukela. Erkiaga musikaria izandakoa eta musikazale handia genduan. Hori agiri-agirian dago edozein olerkitan oso ritmo argia eta nabarmena daukelako. Irakurten hasiaz batera, konturatu barik be, musika-konpas baten ritmoan leiduko dogu edozein testu, musika baleuka moduan.

Honeri lotuta doa rimari emoten deutsan garrantzia. Erkiaga ardura berezia hartuten dau beti rima betetzen. Ha ta guzti be, sarritan rima beteak barik soinu antzekotasuna nahikotzat jotzen dau. Hori euskal poesian, tradiziozkoan batez be, oso normala izan da, eta orain be bada. Erkiagak, beraz, 'hozkidetza' deitxona betetzen dau, baina inoiz hutsik egin barik.

Musikaltasuna, ritmoa eta rima oinarri-oinarrizkoak dira Erkiagaren olerkigintzan.

«Arroxa zurbillak esan du goizkanta
ene bizitzako aldi-orrinoan;
zakur baten zaunga
trokaz troka doa. Bildurrezko joan!

Dardar egiten du ene aragiak
inguruko zerbait atzi ezin baitu;
oiñaze zoliak
nekezko lokarriz orra dana lotu.

Zer? Nor? Zergatikan irakin gaziok
 itsaso-aria nai didate urratu?
 Ez jakin, biziok,
 urre-goiz bat nola ditekean gautu..!»
 («Nork daki zergaitik?», 1958)

Olerki honetan bertan ikusi daitekenez, testu nahiko indartsua da, eta horretarako estrofa guztietan bertso-lerro bat laburragoa egin dau estrofa barruko monotonia apurtuteko. Baina horrez ganera ritmoa bera be apurtu egiten dau batzutan galdera eta harriduren bidez, eta horregaitik irakurleak saltoka moduan leidu behar dau testua. Behin eta barrero erritmoa apurtuteak indar gehiago emoten deutso kasu honetan testuari, geldialdi bakoitzean derrigorrez konturatu behar dogulako hor zeozer arraro dagoala. Rimari buruz, lehenago esandakoa betetzen da. Hau da, lehenengo eta hirugarren bertsoak, eta bigarren eta laugarrenak rimatuten dabe, baina rima baino gehiago hozkidetasuna izango litzateke, hau da, soinu bardintsuak errepikatutea. Guzti hau kontuan hartuta olerkiok oso ederrak dira leiduteko ezeze entzuteko be bai.

Literatur Hizkuntza

Baliabide asko dauka Erkiagak bere poesia gozoa egiteko. Lehenengo eta behin esan behar da herrikoia eta kultura batu egiten dituala. Estrofa eta bertso motetan ikusi dogun moduan, gauzak adierazteko moduan, irudiak egiteko eran, bateko eta besteko etorria igarten jako. Batera zein bestera jo, gizon ikasia dala eta hizkuntza eta literatura landuta daukazala agiri-agirian ikusten da. Lehenago aitaturako adibideetan ikusi dogu herri kanta, ohitura eta esakerak bertsoetan zelan tartekatuten dituan. Beste horrenbeste esan daiteke erreferentzia kultoei buruz. Hango eta hemengo erreferentzi eta aipamenak pitean-pitean sartuten ditu.

«Bizkaiko itsaso asarreberan
 ta ogeigarren mendean
 Orati eta Bergili ditut

ene begien aurrean;
ek izan zuten Musa sorgiña
orain banu nik aldean
bertsu xee oiek bai giro, lorak
maiatzez duten antzean.»
(«Landa gizon banintz», 1950)

Omenaldi modura egindako olerkien artean errepasso bat egin ezkerro, laster konturatuko gara ze idazle eta ze eratako pertsonaiak izan dituan gogoko. Juan Ramón Jiménez, Rosalía de Castro, Axular, R. M^a Azkue, Orixe, eta abar. Zerrenda luzea da danak hona ekartea, baina egiten deuten omenalditik ikusten zelako prestakuntza daukan idazleak literaturaren aldetik. Literatur mundutik kanpora be hainbat pertsonaia ospetsuri, hemengoak zein kanpokoak izan, egin deutse olerkiren bat: Ama Teresa Kalkutako, Jose Maria Makua, Don Tello, Ama Teresa Kalkutako...

Horrez ganera, jakin dakit irakurle amorratua zana, danetarik irakurten eban, lehengo zein oraingo idazlanak, idazle klasiko zein hasi barrien lanak. Denbora asko ez dala, Flaubert eta Dostoyevskiren liburuak irakurri barri eukazala-ta, euron balioaz eta leiduten zenbat gozatu eban azalduten ekin eustan.

Euskal idazleen artean, orokorrean, antzik gehien Lauaxetarena dauka. Dana dala, lehenago esan bezala, belaunaldi horretako beste guztiekaz bat egiten dau hainbat ezaugarritan. Lauaxeta ardatz argia da Erkiagaren obra osoan, bai ideologian, bai literatur ikuspegitik, bai hizkuntzaren erabileragaitik be.

Hortik gora, Txomin Agirre (baita nobeletan be), eta batez be Eusebio M^a Azkue gogoratuten deustaz niri. Eusebio Azkueren moduan, olerki asko idatzi dau eta horregaitik bariedade handia dauka, baina olerki barregarrietan erakusten dauan umoreak haren ziri-bertsoak ekarten deustaz gogora. Iruditeria be batzutan bat dator Azkuek darabilenagaz, dana dala honek prestakuntza ezbardina daukala ikusten da.

«Bizkaiko itsaso asarreberan
 ta ogeigarren mendean
 Orati eta Bergili ditut
 ene begien aurrean;
 ek izan zuten Musa sorgiña
 orain banu nik aldean
 bertsu xee oiek bai giro, lorak
 maiatzez duten antzean.»
 («Landa gizon banintz», 1950)

Bertsolarien etorria eta irudiak egiteko modua sarritan antzemoten jakoz. Gai batzutan Bilintx eta Xenpelarren antz argia dauka, beste batzutan bertsolarien estiloa erabilten dau beste barik, lehenengo adibidean ikusi dogunez.

Irudiak egiteko orduan batzuk irudi oso klasiko edo topikoak dira, literatura unibertsalean idazle zaharrenetatik hona zabaldu direnak. Irudiak egiteko beste iturri bat bertoko idazle eta bertsolarien estiloa da. Bilintx, Arrese Beitia, Xenpelar, edo Lizardi, Lauaxeta, Loramendiren olerkiak gogoratuten dabezan pasarteak edozein olerkitan aurkitu daitezke. Dana dala bere garaira eta bere gaietara egokituta egongo dira beti.

Bilintxeri egindako bertsoko hurrengo estrofa hau Bilintxek berak egindakoa izan eitekean.

«Egun batean txori izan ziñan,
 txori kabirik gabe,
 kabi-tokitzat begiz jo zendun
 arbola lerdin gaztea;
 urrengo baten arroxazale
 ta izarren begiraldea,
 barrenen zendun maite-egarria
 egundo ezin asea.»
 («Bilintx», 1950)

Beste honek, oster, Lizardiren poemetan egiten dan naturaren deskribapenaren antza dauka.

«Zelaien esnatu-bearra
negu-nagiak aterarik!
Berriz dator mendi-bertsolaria
—kuku soiñu berdin—
zuaitz zaarren atsegin».
(«Zure ezpainañak iduri», 1956).

Berak sortutakoak, irudi originalak, beste guztiokaz nahastu egiten dira, danei bere ukutua emoteñ deuselako.

Berba jokoak egitea gogoko dau, askotan erabilten ditu berba antzekoak alkarren ondoan, edo berba konposatuak sortu gero atzekoz aurrera ipinteko.

«Egun batean *txori* izan ziñan,
txori kabirik gabe,
kabi-tokitzat begiz jo zendun
arbola lerden gaztea;»
(«Bilintx», 1950)

'Txori-kabi' lehenengo eta 'kabi-toki' gero. Berba bi dira, alkarren oso antzekoak, biak bertso hasieran dagoz, eta horregaitik indar berezia hartuten dabe estrofa horren barruan.

Berba konposatuak sortutea hiztegia aberasteko darabilzan erreskurtoetariko bat da. Batean hitz-jokoak egiteko, bestean sinonimoak sortuteko, eta azken baten hizkuntzari etekin gehiägo atarateko balioko deutso. Hona adibide honetan agertuten diran sinonimoak.

«Burruka-susmur, gudu-hitz...
giza-zailetan odol, bits.»
(«Atzo bezelaxe», 1958)

Baina berben zentzuagaz ezeze berbon soinuagaz be oso irudi ederrak egiten ditu. Normalean olerkiek dauken musikalidadeari testuan dagozan berben soinuak egiten dauan

efektua gehitu ezkerro, sarritan oso testu ederrak sortuten dira.

«*eguneroko saila
eginez geroztik
etxe zokoak apain
eltxoak ihesi.*»
(«Zarama-zaleak», 1951) *

Lehenengo adibide honetan argi dago lerro hasierako soinuek alkarren artean dauken antzekotasuna. Honetan be, rimari buruz esan dogun moduan, silaba bardinak bakarrik neurtu beharrean, orokorrean belarrirako soinu antzekoa daukenez artean egin behar dogu lotura: e-txe-zo-ko-ak / el-txo-ak. Bigarren berbeak dituan soinu guztiak dagoz lehenengoan.

«Azal legorpean
ezo ezez zorne berri.»
(«Elkarren leian», 1958)

Adibide honetan sistukarien indarra da nabarmenena. Horrez ganera beste gauza bi be ikusi daitekez. Aldé batetik 'ezo' eta 'eze' berbak esanahi bera dauke, sinonimoak dira, eta bestetik 'rr' soinu gogorra da eta sistukariekaz kontrastea egiten dau: legorpean, zorne, berri. Hiruretan gogor ahozkatu behar da. Efectua bikotxa da horregaitik, alde batetik fina emoten dau, baina bestetik gogorra da.

«Aizearen xilibitu
zakarra lazkiro da ari,
lauorri jartzeko gisan.»
(«Maite maitena», 1964)

Beste adibide honetan soinuak sistukariak ('z, x, s') eta konsonante gogorrak ('rr, k') dira barrero be kontrastea. Baina oraingoan esanahiari lotuta dago, alde batetik haizearen soinua imitatu eta bestetik gogorra dala adierazteko.

Bai batean bai bestean Erkiagak soinuen jokoak zelan erabilten dauan ikusten da argi eta garbi.

Eta soinuak belarritik sartuten jakuzan bitartean begietatik hartuten doguz beste zentzu guztiak. Zentzuen arloa askotan ageri da Erkiagaren olerkietan, zuzenean zein zehar bidez, gauza edo leku fisikoei buruz zein sentimentuei buruz dabilela. Ikusi hurrengo adibidean kolorea, soinua, garbitasuna eta poza adierazteko zelako berbak darabilzan.

«Aldareak lorez,
kanpaiak dilindan;
grazi-iturritik ur
gardena xirripan.»
(«Azálkeri?», 1958)

Lorak eta uraren gardenak koloreak dakarskuez gogora; kanpaien doinua hots-hitz baten bitartez adierazi dau sonoridade handiagoa lortuz; grazi-iturriko uraren etorria be «xirripan» berbearen bitartez hots-hitzà eta aldi berean uraren ibiltearen ritmoa adierazten dauz. Zentzu guztiak dagoz dantzan lau bertso-lerro honeetan.

Honek erakusten dau Erkiagak berbak ondo aukeratuten dituala, gauza bat adierazteko zer esan eta zelan asko landuten ebala. Baina horrez ganera euskeraren zirrikituak ondo ezagututen dituala be erakusten dau. Izan be, Erkiagaren idazlanetan orokorrean, eta poesigintzan zehatzago, azpimarratu beharreko ezaugarrien artean hiztegiaren erabilera da garrantzitsuenetarikoa. Euskera oso ondo menperatuten dau, baina hizkuntzaren arlo guztien artean hiztegiari ataraten deutso etekin gehien. Hainbeste berba konposatu, sinonimo, eta era bateko edo besteko soinua dauken berbak erabilteak aberastasun eta ugaritasun handia dakartso testuari. Emoten dau idazlea nasai mobiduten dala olerkiginan, kolore askotako hariak daukazala jostureari gura dauan itxura emoteko. Testuotan ez dago monotoniarik alde horretatik, eta ganera, deskripzino zein ostantzeko edozetarako gauzak zehatzago adierazi leikez, izen eta adjetibo ugaritasunak zehaztasun eta aberastasunerako bidea emoten deutse, eta irakurleak eskertu egiten dau hori.

Hona hurrengo adibidean emoten dauan adjetibo zerrenda luzea. Bai adjetiboan esangureagaitik bai bokaleak ('i, u, e') eta sistukariak sortuten daben soinuagaitik lirikotasun eta zehaztasun maila berezia dauke hurrengo bertsook:

«Xistu egin dit udalenak,
xistu zee, eme, guri.»
(«Zure ezpaiñak iduri», 1956)

Olerki batean ageri da hiztegia dala-ta Erkiagak zer pentsatuten dauan.

«Ez dakigu zertarako
honenbeste Hiztegi potolo.
Ipar/Hegoeko idioma biek
deuskuez berbak eskintzen,
ta izkiriataile barriek
horreezaz balkiatzen.
Prestamuak?
Bai, ba!!
Pantxotarako eta
atunetarako amuak.
Lazio-euskara gaur errez
ikas daike castellauak.»
(«Don Nemexio», 1987)

Erkiagak euskerak berak dituan berben alde egiten dau, inguruko hizkuntzetatik hartutakoei buruz oster, errezegi erabilten ditugula esaten dau. Bere joera euskera bizitik abiatu eta hizkuntza kulturainoko bidea egitea da. Azkueren hiztegia batez be, baina baita Larramendi eta Lhanderenak be, ondo be ondo ezagututen ditu. Eta zertan esanik ez Lekeitioko ahozko hizkera. Bertako etnografiaren barri zehatza emoten dauala esan dogu aurrerago, orain oster esan behar da bertako berbetea beste inon baino hobeto jasota dagoala.

Baina hizkuntza Erkiagarentzat ez da gauzak adierazteko tresna bakarrik. Hori ezeze espresabide eta poetikotasun sortzaile

be bada. Euskerari txispa ataraten deutso, gitxik egin daben bezala.

Euskera

Honezkero heldu gara Erkiagaren euskerari buruz beste zeozer esateko puntura. Olerki bilduma honek hizkuntzaren aldetik ikuspegi bi daukaz zabal adierazita: geografikoa eta historikoa. Lehenengoa dala-ta, Erkiagak euskalki guztiak erabili izan ditu bere idazlanetan. Nagusi bizkaiera da, eta Lekeitio ingurukoa gehiago beharbada, baina hortik gorako guztiak ditu. Danetan ez da bizkaieraz bestean ondo moldatuten, baina ondo ezagututen dauz. Eta ikuspegi historikoari buruz esan daiteke Erkiagaren olerkietan euskerak mende honetan egin dauan eboluzinoa ikusten dala. Mende honetan zehar euskerak hainbat mogimendu eta joeraren eragina hartu dau, aldian aldian estilo ezbardinen alde egin dabela. Horrek danok dagoz Erkiagaren idazlanetan: gerra aurreko aditz sintetikoak eta neologismoak erabilteko joera, gerra osteko euskera batua egiteko egon ziran proposamen ezbardinak (lapurtera klasikoa, oraingo batua...).

Erkiagak beti egin dau euskeraren batasunaren alde, eta hori da beharbada beste euskalki batzuk irakurri, ikasi eta erabiltera eroan dauan arrazoietariko bat. Ha ta guzti be bere susterrari eutsi eutsan beti, helburua zein dan ahaztu barik baina erroak non dituan erakutsiz. Horregaitik euskera batu eta aldi berean aberastu edo ugaritu gura dauanak badauka zer ikasi lan honetan.

Atzena

Eusebio Erkiaga ezagunagoa da gaur egun nobelagile moduan poeta moduan baino, baina ha ta guzti be poesia gehiago idatzi dau, eta epe luzeagoan idatzi be. Hain olerki corpus handia izanda, gatxa da bertako bariedadea zehatz azaldutea. Bai gaien aldetik, bai olerkiak atonduteko darabilzan neurri, egitura eta estilo ezaugarrien aldetik, oso zabal hartuko leuke arlo bakotxa behar dan bestean aztertuteak. Dana dala, ezaugarri nagusienak aitatu behar izan ezkerro zera esango neuke: pentsakera aldetik

euskaldun-fededun agertuten dala argi eta garbi. Horrez ganera gai objetiboagoak be erabilten ditu: Lekeitio, arrantzale-baserritarren bizimoduaren deskribapena, pasadizu edo benetako gertaeretan oinarritutako kontaerak, eta pasarte barregarri edo ironikoak.

Olerkiak egiteko era guztietako moldeak darabilz, bertsolarienak era guztietakoak, ostantzekoak be asko: hamalaukoak, kopla antzekoak..., eta bertso-libre modura be beste hainbat olerki daukaz. Dana dala rimari garrantzi berezia emoten deutso, nahiz ta rima osoa izan ez beti eukiko dabe amaiera antzeko soinuen bitartez bateratuta.

Zeozer azpimarratutekotan ha ta guzti be, nik musikaltasuna, ritmoa, berba eta soinukaz egiten dituan jokoak, eta hiztegi mailan darabilen aberastasuna aitatuko neukez, Erkiagaren olerkigintzaren bereizgarri nagusi moduan.

Igone Etxebarria
Bedia, 1993ko urriaren 15a.